

EUSKARA

2017ko azaroa

GIPUZKOAKO NERABE EUSKALDUNAK: IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOA ETA SORKUNTZA

AISIALDIA ETA IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOA

Ainhoa Fernández de Arroyabe Olaortua _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakaslea.

Iñaki Lazkano Arrillaga _ EHUko Kazetaritza II Saileko irakaslea.

Leyre Eguskiza Sesumaga _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko ikertaria.

Iñigo Larrauri Garate _ EHUko Artearen Historia eta Musika Saileko irakaslea.

Santos Zunzunegui Díez _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakaslea.

Imanol Zumalde Arregi _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakaslea.

EGILE GUZTIAK IGM/MAC IKERKETA TALDEKO KIDE DIRA



mac

Ikus-entzunezko Garaikideen Mutazioak
Mutaciones del Audiovisual Contemporáneo



ETORKIZUNA ERAIKIZ
EL **FUTURO** DE GIPUZKOA



Aurkibide orokorra

AISIALDIA ETA IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOA

1. AISIALDIA (1-2)	14
2. IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOA AISIALDIAN (3-5)	18

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Astean zehar jarduera bakoitzari eskainitako denboraren batezbestekoa	14
2. grafikoa. Larunbat edo jaiegun batean jarduera bakoitzari eskainitako denbora.....	16
3. grafikoa. Denbora librean nerabeek ikusitako edukien batezbestekoak	18
4. grafikoa. Aisialdian nerabeek ikusitako edukien batezbestekoak	20
5. grafikoa. Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko edukien kontsumoa	21
6. grafikoa. Nerabeek euskaraz ikusitako edukien portzentajeak	22

Taulen aurkibidea

1. taula. Eskola egunetan nerabeek jarduera ezberdinetan emandako denbora eskualdeka.....	15
2. taula. Larunbat edo jaiegunetan jarduera ezberdinetan emandako denbora eskualdeka	17
3. taula. Aisialdian nerabeek ikusten dituzten edukiak eskualdeka.....	19
4. taula. Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko edukien kontsumoa eskualdeka.....	22
5. taula. Nerabeek euskaraz ikusten dituzten edukien portzentajeak eskualdeka	23

Emaitzen analisia

1. AISIALDIA

(1) Eskola egun batean, zer egiten duzu zure denbora librean? Atzo edo azken eskola egunean, esaterako, zenbat denbora, gutxi gorabehera, eskaini diezu taulako jardueri?

Eskola egunetan denbora gehien etxetik kanpo lagunekin ematen dutela diote nerabe gipuzkoarrek, ordubete eta laurden inguru batezbeste (77 minutu). Jarraian, txateatzea, txiokatzea, eta bereziki, adiskideekin WhatsApp bidez aritzea -ordubete pasatxo (67 minutu)-dute gustuko. Telebistaren inguruan biltzekoak ere badira. Gurasoekin eta anai-arrebekin ikusten dute gehien telebista, ordubete kasik (54 minutu). Edozelan ere, bakarrik edo lagunekin egiten duten telebista kontsumoa (48 minutu) ere paretdua da. Ondoren, ia-ia maila berean, bideojokoak (46 minutu) leudeke. Sarri, adiskideak edo anai-arrebak lagun hartuta, bideojokoetan aritzen baitira nerabeak. Guraso eta anai-arrebekin jolasean ibiltzeko tarterik ere, ordu erdi inguru (32 minutu), badute. Antzeko denbora (31 minutu) igarotzen dute bideoak bakarrik edo lagunekin ikusten. Halaber, zinemara gutxi doaz. Dena dela, sormenarena da azken tokia. Izan ere, **nerabeek denbora tarterik txikiena (21 minutu) eskaintzen diote bideoak, argazkiak eta bestelakoak sortu eta partekatzeari.**

1. grafikoa. Asteaz zehar jarduerari eskaintako denboraren batezbestekoa



Iturria: Egileak berak egina.

Datuak eskualdeka aztertuz gero, hainbat kontu aipagarri aurki daitezke. Lehenik eta behin, nerabeek etxetik kanpo lagunekin beste eskualdeetan baino nabarmen denbora gehiago, ordu eta erdi pasatxo batezbeste (96 minutu), ematen dutela Tolosaldean. Txateatu, txiokatu eta WhatsAppean aritzeari tarterik handiena eskaintzen diotenak, aldiz, Debabarreneko nerabeak (75 minutu) dira. Telebista familia artean ikusteko ohiturari erreparaturik, Urola Kostan (61 minutu) du indarririk gehien. Bideoak bakarrik edo lagunekin ikusteari dagokionez, Debagoieneko gazteak dira denbora gutxien (21 minutu) igarotzen dutenak. Azkenik, sormena ardatz hartuta, azken hauek ere dira denbora gutxien (14 minutu) pasatzen dutenak.

1. taula. Eskola egunetan nerabeek jarduera ezberdinetan emandako denbora eskualdeka

	Guztira	Tolosaldea	Goierri	Donostialdea	Debagoiena	Oarso- Behelatasoa	Urola Kosta	Debabarrena
Etxetik kanpo lagunekin ibiltzea	77	96	82	70	77	72	86	74
Txateatzea, txiokatzea, WhatsAppean aritzea lagunekin	67	70	62	64	62	70	67	75
Telebista ikustea gurasoekin edo anai-arrebeekin	54	59	53	51	53	52	61	52
Telebista ikustea bakarrik edo lagunekin	48	51	51	46	47	48	50	44
Bideojokoekin etxean jolastea lagun edo anai-arrebeekin	46	50	40	46	46	44	49	47
Gurasoekin edo anai-arrebeekin jolastea	32	38	38	31	31	27	33	35
Bideoak bakarrik edo lagunekin ikustea nire gelan	31	35	26	32	21	34	36	33
Zinemara joatea lagunekin	23	24	21	28	14	25	22	11
Bideoak, argazkiak... sortu, editatu eta online partekatzea lagunekin	21	23	18	22	14	23	19	22

Iturria: Egileak berak egina.

Generoaren ikuspuntutik, mutilek (49 minutu) neskek (14 minutu) baino denbora gehiago ematen dute batezbeste bideoak bakarrik edo lagunekin ikusten. Halaber, mutilek (51 minutu) neskek (41 minutu) baino hamar minutu gehiago eskaintzen dizkiote bideojokoekin jolasteari. Etxetik kanpo adiskideekin igarotzen duten denborari dagokionez, aldea ere berbera da mutil (82 minutu) eta nesken (72 minutu) artean. Bestalde, **neskek (79 minutu) mutilek (54 minutu) baino denbora gehiago eskaintzen diote txateatzeari, txiokatzeari nahiz WhatsAppean aritzeari.**

Ikasturteari erreparatuta, adinean aurrera egin ahala, adiskideekin WhatsAppean denbora gehiago ibiltzen dira batezbeste nerabeak (DBH1: 49 minutu, DBH4: 79 minutu). Era berean, gutxiago jolasten dira etxearekin (DBH1: 38 minutu, DBH4: 25 minutu) eta bideo gutxiago ikusten dituzte bakarrik (DBH1: 37 minutu, DBH4: 25 minutu).


Euskararen erabileraren aldagaiari arreta jarrita, ezberdintasun gutxi ageri dira. Sorkuntzarekin du zerikusia esanguratsuenak. Alegia, **euskaraz bizi ez direnek (26 minutu) bizi direnek (18 minutu) baino denbora gehiago pasatzen dute bideo, argazkiak... sortzen, editatzen eta online partekatzen lagunekin.**

(2) Asteburu edo jaiegun batean, zer egiten duzu zure denbora librean? Azken asteburuan, esaterako, zenbat denbora, gutxi gorabehera, eskaini diezu taulako jarduerari?

Asteburu edo jaiegunetan aisialdia igarotzeko ohiturak astegunekoak berdinak dira. **Gazteek etxetik kanpo lagunekin ibiltzen ematen dute denbora gehien, bi orduetik gora batezbeste (131 minutu). Era berean, txateatzea, txiokatzea eta WhatsAppean aritzea bezalako jardueretan ia ordu eta erdi (81 minutu) igarotzen dute.** Bestalde, ordu eta laurden pasatzen dute familiarekin telebista ikusten (75 minutu). Lagunekin edo bakarrik telebista ikusten, berriz, ordu bate pasatxo (66 minutu) egiten dute. Eta, bideoak ikusten, ordu bate (59 minutu). Gainontzeko jardueretan ordu batetik behera aritzen dira: bideojokoekin etxean jolasten (50 minutu), zinemara lagunekin joaten (49 minutu) eta familiarekin jolasten (47 minutu). Amaitzeko, bideoak, argazkiak eta bestelakoak sortu, editatu eta partekatzeari ordu erdi (28 minutu) soil-soilik eskaintzen diote.

Astegunetako emaitzekin alderatuz gero, lehen lau postuetan aldaketarik ez dago. Hori bai, etxetik kanpo lagunekin nerabeek ematen duten denbora izugarri areagotzen da. Nolanahi ere, asteburu eta jaiegunetan gazteek bideo gehiago ikusten dituzte –bideojokoekin jolasteak gora egiten badu ere, bosgarren lekua galtzen du–. Eta, horrezaz gain, sarriago doaz ere zinemara. Ondorioz, gurasoekin eta anai-arrebeekin etxean jolasteko ez dute hainbeste denbora. Aldaketak aldaketa, sormenak ez du, inondik ere, azken lekua uzten.

2. grafikoa. Larunbat edo jaiegun batean jarduera bakoitzari eskainitako denbora



Iturria: Egileak berak egina.

Eskualdeka berezitasun bakan batzuk azpimarra daitezke. Eskualde guztietan asteburu eta jaiegunetan nerabe guztiak etxetik kanpo lagunekin askoz gehiago irteten badira ere, Goierriin inon baino gehiago: bi ordu eta laurden pasatxo batezbeste (139 minutu). Debarrenenekoak, aldiz, dira txateatzen, txiokatzen eta WhatsAppean gehien aritzen diren nerabeak (93 minutu). Telebistaren kontsumoari dagokionez, ñabardurak ñabardura, oreka da nagusi eskualde orotan. Gorabehera handirik ez

dago, alegia. Beharbada, aipagarriena, Goierrin (69 minutu) familiarekin telebista ikusteko jardueran batezbesteko denbora kopururik txikiena ematen dela da. Azkenik, bideojokoekin gutxien jolasten direnak Debagoienekoak dira, ordu erdi pasatxo (38 minutu) bakarrik igarotzen baitute.

2. taula. Larunbat edo jaiegunetan jarduera ezberdinetan emandako denbora eskualdeka

	Guztira	Tolosalde	Goierrri	Donostialdea	Debagoiena	Oarso- Beha Bidasoa	Urola Kosta	Debarrena
Etxetik kanpo lagunekin ibiltzea	131	125	139	129	131	129	132	136
Txateatzea, txiokatzea, WhatsAppean aritzea lagunekin	81	76	76	81	75	87	79	93
Telebista ikustea gurasoekin edo anai-arrebeekin	75	75	69	76	71	79	74	79
Telebista ikustea bakarrik edo lagunekin	66	68	65	69	61	64	66	69
Bideoak bakarrik edo lagunekin ikustea nire gelan	59	60	52	62	51	58	59	61
Bideojokoekin etxean jolastea lagun edo anai-arrebeekin	50	50	43	54	38	54	50	56
Zinemara joatea lagunekin	49	44	43	60	33	60	43	32
Gurasoekin edo anai-arrebeekin jolastea	47	54	49	48	42	44	47	51
Bideoak, argazkiak... sortu, editatu eta online partekatzea lagunekin	28	25	23	30	21	34	23	30

Iturria: Egileak berak egina.

Generoa oinarri hartuta, batezbeste, mutilek (76 minutu) neskek (26 minutu) baino denbora gehiago xahutzen dute bideojokoetan jolasten, ia ordubete gehiago. Mutilek (65 minutu) ere neskek (52 minutu) baino denbora tarte handiagoa pasatzen dute bideoak ikusten asteburuan eta jaiegunetan. **Neskek, euren aldetik, batezbeste, denbora askoz gehiago ematen dute txateatzen, txiokatzen eta WhatsAppean (95 minutu). Alegia, mutilek (67 minutu) baino ordu erdi gehiago.**

Halaber, sormenaren alorrean, neskek (32 minutu) mutilek (23 minutu) baino denbora gehiago ematen dute.

Ikasturtearen aldagaiari erreparatuz gero, **adinean aurrera egin ahala, tarte dezente handiagoa, ordu erdi batezbeste, eskaintzen diote txateatzeari, txiokatzeari eta WhatsAppean aritzeari** (DBH1: 60 minutu eta DBH4: 97 minutu).


Euskararen erabilerak ere islarik badu nerabeen ohitura eta kontsumo joeretan. **Euskara eguneroko bizitzan ez darabiltenak bideojokoekin gehiago jolasten dira eta apur bat sortzaileagoak ere badira.** Adierazi bezala, batezbeste, euskaraz bizi ez direnak (58 minutu), hizkuntza horretan bizi direnak (46 minutu) baino gehiago jolasten dira bideojokoekin; ordu laurden gehiago. Antzera gertatzen da euskara teknologian ez darabiltenen (60 minutu) eta darabiltenen (45 minutu) artean. Sormenari dagokionez, alderik bada. Euskaraz bizi ez diren nerabeek (34 minutu) aipatu hizkuntzan bizi direnek (25 minutu) baino denbora gehiago ematen dute argazkiak eta bestelakoak sortu, editatu eta partekatzen. Kasu honetan ere, berdintsu gertatzen da euskara teknologian ez darabiltenen (33 minutu) eta darabiltenen (25 minutu) artean.

2. IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOA AISIALDIAN

(3) Zer-nolako edukiak ikusten dituzu zure denbora librean?

Nerabeek gehien ikusten dituzten edukiak pelikulak dira (%94,8). Jarraian, telesailak (%83,2), youtuberrak (%80,6), kirolak (%70,2), bideoklipak (%69,8), interneteko bideoak (%68,6), realityak (%59,7), lehiaketak (%55,4), albisteak (%53,6) eta dokumentalak (%44,3) kokatzen dira, hamar eduki jarraituenen zerrenda osatuz.

3. grafikoa. Denbora librean nerabeek ikusitako edukien batezbestekoak



Iturria: Egileak berak egina.

Datuak eskualdeka aztertuz gero, aldaketa gutxi antzematen dira. Oarso-Behe Bidasoako ikasleen artean, kasu, %42k soil-soilik -batezbestekotik 11,6 puntu behera- ikusten dituzte albisteak. Web telesailen ikusleak aintzat harturik, Goierrikoak dira portzentajeirik apalena (%11,4) dutenak. Nekez gainditzen dute-eta batezbesteko portzentajearen erdia. Pornoari dagokionez, Debagoienean (%12,1) eta Oarso-Behe Bidasoan (%13,9) ematen dira ikusle kopururik apalena. Debabarrenean, aldiz, pornozaleen portzentajeak (%23,5) gora egiten du.

3. taula. Aisialdian nerabeek ikusten dituzten edukiak eskualdeka

	Guztira	Tolosaldea	Goletri	Donostialdea	Debagoiena	Oarso- Behe Bidasoa	Urola Kosta	Debabarrena
Pelikulak	94,8	94,5	93,4	95,6	94,3	94,1	94,1	96,6
Telesailak	83,2	84,2	84,7	82,4	87,1	80	84,7	82,9
Youtuber-ak	80,6	76,3	78,2	81,2	78,4	82,8	84,3	79,9
Kirolak	70,2	71,5	69,4	68,6	75	65,1	77,3	71,4
Bideoklipak	69,8	68,8	67,7	69,6	73,5	67,7	71	71,8
Interneteko bideoak	68,6	67,2	62,4	68,2	65,5	72,6	70,6	71,8
Reality-ak	59,7	59,7	55,9	56,2	57,2	63,4	65,5	64,5
Lehiaketak	55,4	54,9	58,5	53,2	63,3	48,6	59,6	58,5
Albisteak	53,6	59,7	61,1	52,9	56,8	42,0	60,4	52,1
Dokumentalak	44,3	45,8	45	47,2	43,2	38,2	48,2	40,2
Bideo-tutorialak	39,7	32,8	33,2	42,9	33,3	42,9	40,4	43,2
Saio arrosak	29,1	28,9	27,9	29,2	31,4	25,2	30,2	33,8
Web telesailak	20,3	19	11,4	21,6	20,8	24,3	14,9	23,9
Pornoa	18,1	20,2	15,7	19,6	12,1	13,9	21,6	23,5
Ed/Ee	0,2	0,8	0,4	0,1		0,5		

Iturria: Egileak berak egina.

Generoa ardatz hartuta, alde esanguratsurik bada neska eta mutilen artean. **Neskek pelikulak** (%96,8), **telesailak** (%86,8), **bideoklipak** (%74,7), **realityak** (%65,7), **bideo tutorialak** (%46,4), **saio arrosak** (%33,7) eta **web telesailak** (%23,1) **gehiago** jarraitzen dituzte; **mutilak**, aldiz, **gogokoago dituzte youtuberrak** (%83,9), **kirolak** (%83,9), **interneteko bideoak** (%74), **lehiaketak** (%61,7), **dokumentalak** (%53,9) eta **pornoa** (%32,1). Alderik nabarmenenak mutilak nagusi direnatan ematen dira. Hala, mutilen %83,9k kirolak ikusten dituzte. Nesken artean, ordea, portzentajea %57ra jaisten da. Pornoarekin ere beste horrenbeste gertatzen da. Mutilen %32,1ek aitortzen dute pornoa ikusten dutela. Nesken %4,5ek bakarrik diote halakorik.


Adinaren arabera ematen diren aldaketak ez dira oso handiak. Edozelan ere, aipagarrienak nabarmenduko dira. Horrenbestez, **youtuberrak** (%83,3) **DBH3n** **gehiago kontsumitzen dira** beste ikasturteekin alderatuta, **bideoklipekin** (%72,8), **interneteko bideoekin** (%69,7) edo **realityekin** (%64,6) gertatzen den bezala. **Lehiaketak** (%57,6) eta **dokumentalak** (%49,8), berriz, **DBH2n** kontsumitzen dira gehien. **Albisteak** (%57) eta **pornoa** (%26,9) **DBH4n** aurreko ikasturteetan baino dezente gehiago ikusten dituzte. **Saio arrosak gutxien** ikusten dituztenak, azkenik, **DBH1eko ikasleak** dira.

Euskararen esparruari dagokionez, **euskaraz bizi direnek** aipatu hizkuntzan bizi ez direnek baino **portzentaje altuagoak** dituzte **kirolak** (%75,2 eta %61,4, hurrenez hurren), **lehiaketak** (%59,3 eta %48,3, hurrenez hurren) eta **albisteak** (%59,6 eta %43, hurrenez hurren) kontsumitzeko tenorean. Euskara teknologian erabiltzen dutenen eta ez dutenen artean ere beste horrenbeste gertatzen da. Aitzitik, **euskara egunerokotasunean erabiltzen ez dutenek** (%44,4) erabiltzen dutenek (%37) baino **portzentajea hobea dute bideo-tutorialen kontsumoan**.

(4) Zein da edukiak ikusteko gehien erabiltzen duzun gailua?

Smart telebista eta telebista tradizionala dira ikus-entzunezko edukiak ikusteko **nerabeek gehien erabiltzen dituzten gailuak**. Nolanahi ere, **telefono mugikorra bideoklipak** (%40,2) eta **pornoa** (%65,5) kontsumitzeko askoz gehiago erabiltzen da.

4. grafikoa. Aisialdian nerabeek ikusitako edukien batezbestekoak



Iturria: Egileak berak egina

Eskualde mailan, berriz, ez dago aldaketa handirik.

Generoari arreta jarrita, neskek pelikulak (%16,4) eta telesailak (%12,5) ikusteko mutilek (%8 eta %3,7, hurrenez hurren) baino nabarmen gehiago erabiltzen dute ordenagailua. Eduki berdinak ikusteko, aldiz, smart telebista gehiago erabiltzen da mutilen artean. Hala, horren erakusgarri, telesailak lirateke. Mutilek (%51,5) neskek (%42,3) baino areago baitarabilte smart telebista telesailak ikusteko. Kirolarekin eta dokumentalekin ere gauza bera gertatzen da.

Ikasketa mailari helduz, pelikulak ikusteko telebista tradizionala darabiltela diote DBH1eko ikasleen %38,2k. DBH4ko ikasleen portzentajea, baina, %23,6ra jaisten da. Ordenagailuaren kasuan, kontrakoa gertatzen da. DBH1eko ikasleen %4,8k erabiltzen baitute ordenagailua filmak ikusteko. DBH4ko ikasleen artean, ostera, %17,9k. **Beraz, pelikulak ikusteko orduan, adinean aurrera egin ahala, telebista tradizionala gutxiago eta ordenagailua gehiago erabiltzen dela esan daiteke. Halaxe jazotzen da ere telesailen kasuan.** Telesailak ikusteko, hain justu, telebista tradizionala erabiltzen dutela diote DBH1eko ikasleen %43,1ek. Azken ikasturteetan, ordea, telebista ikusleen portzentajeak behera egiten du (DBH3: %30 eta DBH4: %29,4). Telesailak ikusteko ordenagailua darabilten ikasleen kopurua, berriz, igo egiten da adinean gora egin ahala (DBH1: %2,7; DBH2: 5,1; DBH3: %13; eta DBH4: %12,7).

Adinak ere zerikusirik badu bideoklipak kontsumitzeko erabilitako gailuen aukeran. Bideoklipak ikusteko telefono mugikorra erabiltzen dute DBH1eko ikasleen %28,9k, eta, DBH4ko ikasleen %46,1ek. Tabletaren kasuan, ordena aldatzen da. DBH1eko ikasleen %19,7k erabiltzen dute-eta tableta bideoklipak ikusteko. Ordea, DBH4ko ikasleen portzentajea, %9,5era jaisten da. **Beraz, bideoklipak ikusteko, adinean gora egin ahala, tableta gutxiago eta telefono mugikorra gehiago erabiltzen da.**

Halaber, pornoa ikusteko gailurik erabiliena telefono mugikorra da ikasturte guztietan (DBH1: %50; DBH2: %55,1; DBH3: %71; DBH4: %68,6). Ordenagailua, aldiz, DBH2koen artean erabiltzen da nabarmen, batezbestekotik gora (%28,1).


Euskararen erabilerari dagokionez, euskaraz bizi diren ikasleek pelikulak (%32,9) eta telesailak (%38,7) euskaraz bizi ez direnek (%26,9 eta %30,3, hurrenez hurren) baino areago ikusten dituzte telebista tradizionalan. Euskara eguneroko bizitzan erabiltzen dutenek ere gehiago darabilte ordenagailua bideoklipak ikusteko (%35,6), euskara hain maiz erabiltzen ez dutenekin (%27,6) alderatuta. Albisteen kasuan ere joera errepikatu egiten da. Lehenen artean, %42,1ek darabilte telebista tradizionala albistek ikusteko. Euskaraz bizi ez direnen artean, ostera, portzentajeak ia hamar puntu egiten du behera (%32,6). Aitzitik, azken hauek telefono mugikorra (%9,4), ordenagailua (%9,9) eta tableta (%5,1) gehiago erabiltzen dituzte euskaraz bizi direnek baino.

(5) Ikusten dituzun eduki guztietatik, zenbat dira euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez?

Nerabeek edukien %70,17 gaztelaniaz ikusten dituzte, %19,96 euskaraz, eta %9,87, ingelesez.

Eskualdeei erreparaturaz gero, gaztelaniazko edukien kontsumoa batezbestekotik (%70,17) behera aurkitzen dugu Urola Kosta (%62,61), Tolosaldea (%63,57), Debabarrena (%65,29) eta Debagoieneko (%65,99) eskualdeetan, eta batezbestekotik gora, ostera, Goierri (%71,05) Donostialdea (%74,36) eta Oarso-Behe Bidasoan (%76,27).

5. grafikoa. Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko edukien kontsumoa



Iturria: Egileak berak egina

Euskarazko edukiak batezbestekotik (%19,96) gora kontsumitzen dituzte Goierri (%21,13), Debabarrena (%24,6), Debagoiena (%25,47) eta Tolosaldean (%28,94). Batezbestekotik behera daude nabarmen Donostialdean (%14,88) eta Oarso-Behe Bidasoan (%12,56).

Ingelesaren kasuan, aipatu azken bi eskualdeak (%10,76 eta %11,17, hurrenez hurren) batezbestekotik (%9,87) gora daude, Debabarrena (%10,11) eta Urola Kostarekin (%10,33) batera; Tolosaldea (%7,49), Goierri (%7,83) eta Debagoiena (%8,55), ostera, batezbestekotik behera daude.


4. taula. Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko edukien kontsumoa eskualdeka

	Guztira	Tolosaldea	Goierri	Donostialdea	Debagoiena	Oarso- Behe Bidasoa	Urola Kosta	Debabarrena
Gaztelania	70,17	63,57	71,05	74,36	65,99	76,27	62,61	65,29
Euskara	19,96	28,94	21,13	14,88	25,47	12,56	27,07	24,6
Ingelesa	9,87	7,49	7,83	10,76	8,55	11,17	10,33	10,11

Iturria: Egileak berak egina.

Euskarari dagozkion datuak xehetasunez behatuz, azpimarratzeko modukoa da euskarazko edukiak kontsumitzen dituztenen artean, **gehienez (%38,5) %1-%25 artean ikusten dituztela ikus-entzunezko hauek. Jarraian, euskaraz inolako edukirik kontsumitzen ez dutenak (%21,2) kokatzen dira.** Ondoren, **euskarazko ikus-entzunezkoak %26-%50 (%20,8), %51-%75 (%3,9) eta %76-%99 (%1,6) tartean ikusten dituztenak daude. Azken tokian eduki guztiak euskaraz ikusten dituztenak ageri dira (%0,6).**

6. grafikoa. Nerabeek euskaraz ikusitako edukien portzentajeak



Iturria: Egileak berak egina.

Datuak eskualdeka aztertzean aldaketa franko ageri dira. Euskaraz ezer ikusten ez dutenak batezbestekotik (%21,2) behera daude Tolosaldea (%9,5), Debagoiena (%11), Urola Kosta (%13,3), Debabarrena (%14,5) eta Goierri (%16,6); eta batezbestekotik gora, ostera, Donostialdea (%27,5) eta Oarso-Behe Bidasoan (%34,2). Era berean, %26-%50 artean euskarazko

edukiak ikusten dituztenak batezbestekotik (%20,8) gora daude Tolosaldea (%31,6), Urola Kosta (%29), Debabarrena (%28,2), Debagoiena (%27,3) eta Goierri (%23,6); Donostialdea (%14,3) eta Oarso-Behe Bidasoan (%11,6), aldiz, batezbestekotik behera agertzen zaizkigu. %51-%75 artean euskarazko edukiak ikusten dituztenak Debabarrenean (%6,8) eta, bereziki, Tolosaldean (%9,1), nabarmen daude batezbestekotik (%3,9) gora (%9,1); Donostialdean (%2,1) eta Oarso Behe-Bidasoan (%0,9) nabarmen behera dauden bitartean. Azkenik, Tolosaldean eduki guztiak euskaraz ikusten dituztela diote nerabeen %1,6k, eskualdeen arteko portzentajerik altuena. Debagoiena (%0,8) eta Urola Kosta (%0,8) ere batezbestekotik (%0,6) gora kokatzen dira kasu honetan.

Beraz, banaketa argi bat nabari da: alde batetik, edukiak euskaraz kontsumitzeko joera argia duten eskualdeak (Tolosaldea, Debagoiena, Urola Kosta eta Debabarrena); eta bestetik, euskararekiko uruntasuna erakusten duten Donostialdea eta Oarso-Behe Bidasoa eskualdeak (Goierri hurbilago legoke lehen taldetik). Halaber, edukien erdiak baino gehiago euskaraz kontsumitzen dituztenak euskara gehien darabilten eskualdeetan ere oso gutxi dira.

5. taula. Nerabeek euskaraz ikusten dituzten edukien portzentajeak eskualdeka

	Guztira	Tolosaldea	Goierri	Donostialdea	Debagoiena	Oarso-Behe Bidasoa	Urola Kosta	Debabarrena
%0	21,2	9,5	16,6	27,5	11,0	34,2	13,3	14,5
%1-25 artean	38,5	32,4	38,9	41,5	40,2	36,8	35,7	39,7
% 26-50 artean	20,8	31,6	23,6	14,3	27,3	11,6	29,0	28,2
% 51-75 artean	3,9	9,1	2,6	2,1	5,3	0,9	6,3	6,8
% 76-99 artean	1,6	2	2,2	1	2,7	0,7	2,7	1,7
%100	0,6	1,6		0,4	0,8	0,5	0,8	0,4
Ed/Ee	13,3	13,8	16,2	13,2	12,9	15,3	12,2	8,5

Iturria: Egileak berak egina.

Adinaren ikuspuntutik datuak aztertuz gero, DBH1eko ikasleen %27,3k diote euskarazko edukiak %26-50 artean kontsumitzen dituztela, batezbestekotik (%20,8) gora; askoz gutxiago dira DBH3n gauza berbera diotenak (%16,7, hain justu), ostera. **Orokorrean, adinean gora egin ahala, nerabeek euskaraz ikusten duten eduki kopurua urritu egiten da. Generoari dagokionez, euskarazko edukiak %1-25 zein %26-50 artean ikusten dituztenak gehiago dira nesken artean.** %51-75 eta %76-99 artean, oso antzera kontsumitzen dute euskaraz batzuek zein besteek. Eduki guztiak euskaraz ikusten dituztela dioten talde txikian mutilak gehiago dira.

Euskaraz bizi direnen artean, %40,7k euskarazko edukiak %1-%25 artean kontsumitzen dituzte; %28,4k, berriz, %26-%50 artean, eta %5,9k %76-%99 artean. **Hortaz, euskaraz bizi direnen artean, gehienek %1-%25 artean kontsumitzen dituzte euskarazko edukiak.** Euskaraz bizi ez direnekiko (%34,7) aldea sei puntukoa da. **Arrakalarik handiena, baina, edukiak inoiz euskaraz ikusten ez dituztenen esparruan dago. Euskaraz bizi direnen artean %9,8k ez dute sekula euskarazko edukirik ikusten. Euskaraz bizi ez direnen artean, ostera, portzentajea %41,6 da.**

Antzera gertatzen da ere teknologia euskaraz baliatzen dutenen zein ez dutenen artean, eta, ikasketetan euskara darabiltenen zein ez darabiltenen artean. **Gehienek, euskaraz bizi direnen artean gertatzen den gisara, %1-%25 artean kontsumitzen baitituzte euskarazko edukiak.**

Ikastetxe mota kontuan harturik, nabarmentzekoa da euskarazko edukiak %26-%50 artean ikusten dituztenak **gehiago direla Hezkuntza Saileko ikastetxeetan** (%24,2) **ikastetxe pribatuetan** (%18,2) baino. **Euskaraz ezer ikusten ez dutenak**, aldiz, **ikastetxe pribatuetan** (%23,9) **Hezkuntza Sailekoetan** (%17,7) baino **gehiago** dira.

Azkenik, bi datu aipagarri. Alde batetik, estatus ekonomiko altuko familietako nerabeen %52,5ek euskarazko edukiak %1-%25 artean kontsumitzen dituzte; estatus baxukoen artean, berriz, portzentajea %34,3ra jaisten da. Aldea esanguratsua da. Eta, beste aldetik, kontuan hartzeko modukoa da kontrol sozial handia duten nerabeen artean %42,7k euskarazko edukiak %1-%25 artean ikusten dituztela (batezbestekotik nabarmen gora); eta kontrol sozial baxua dutenen artean, aldiz, ikasleen %33,1ek (batezbestekotik behera nabarmen) soil-soilik.



ETORKIZUNA ERAIKIZ
EL **FUTURO** DE GIPUZKOA

